

447 zenbakia, 2001eko apirilaren 6a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara



Aisiaguneak

Paseatzeko, egonean egoteko, jolasteko, eguzkia hartzeko...

Erramu Zapatuko feria abelgorri eta ardi barik aurten | Orfeoia saritua Alacanten

Astra

**Aire girotua
duen Opel Astra
1.960.000 pezetan ***



- Opel Astrak, serieko ekipamenduarekin, denetarik dauka: •ABS sistema•Aurreko aire poltsak
•Alboetako aire poltsak•Direkzio lagundua•Kristal-igogailu elektrikoa aurrealdean•Ateen itxidura zentralizatua
urrun-managailuarekin•Bolante erregulagarria•Autoa ez lapurtzeko sistema elektronikoa
•Orain, aire girotu eta guzti, 1.960.000 pezetatik aurrera

*11,70 €. P.V.P. Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria penintsulan eta Balear Uharteetan. Opel Astra 1.6 Club, 3 ate. Hau guztia barne: promozioa, BEZ, matrikulazio zerga, garraioa eta Prever Plana berundun gasolina autoetan. Hii bukaera arteko promozioa.

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g. Telefonoak: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:

TAKOLO AUTOAK, S.L.

HELBIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Telefonoa: 943 79 05 86.



Bizitzaren zentzua bilatzea

Tomasa Zabaleta

Garrantzia duen gai baten inguruan kokatu nahi dut hausnarketa, jakinik modan ez dagoela eta aipatzekak bakarrik lotsaz gorritzen gaituela. Bizitzaren zentzuaren bilaketa aipatzeari itxura arraroa hartzen diogu, eta badirudi gure denborarekin zerikusirik ez duela. Nik neuk uste dut gizakion etengabeko eskara den zoriontasunarekin eragin zuzena duela. Azalkearen eta ihesbidearen kultura nagusi den gizarte bizi gara, betiere, sentsazio eta emozio berrien bila, gure buruarekiko ihesi, gure barneko hutsarekin edo bakea kentzen diguten konpondu bariko gatazkekin topo egiteak beldurra ematen digu eta. Horrenbeste azaleratutako gizarte honek barnetasun barik eta, ondorioz, giza funts barik utzi gaituela esan dezakegu.

Eta galdera honako hau litzateke: bizitzaren zentzuarekin zer-nolako zerikusia du honek? Gutxi eta asko. Gutxi, nagusi den kultura eta bizitzaren zentzuaren bilaketara daraman bidea oso urrun daudela elkarrengandik, eta asko, azalkearen merkatuak saldu nahi diguna kontuan hartzeke, gizakiak, esentzialki eta erradikalki, lehenago edo geroago, ezin diolako uko egin bere bizitzaren zentzuaren galderari, erantzuna emateko ausardia izan edo ez.

Bizitzaren zentzua izatea da helburu bat duen bizitzaren oinarritzko orientazioa aurkitzea. Norberak egiten duen gutzia (gutxi edo asko izatea berdin dio) oinarritzko orientazio horretan barneratzen da, eta horrek, gizakiari unitatea eta funtsa emateaz gain, benetako zoriontasunaren iturri diren askatasuna eta bakea lortzeko bidea zehazten du. Bizitzaren zentzua izatea "ni sakonera" daraman bidea aurkitzea da, gure existentziaren motorra den nukleo zentrala edo identitatea hor dago eta, "ni sakonena". Hortik abiatuta, bizitza nahi dugun tokitik eroan dezakegu, alde batetik edo bestetik jotzen duten haizeen mende ez egoteko.

Azkenik, zera galdetzen diogu geure buruari: zer egin dezakegu gure bizitzan zentzunez jokatzeko? Badira jarraitu beha-

reko pista batzuk: alde batetik, barnetasunaren garapena aipatuko nuke. Bizitzaren zentzua pertsonaren barnean sortzen da, eta norberak zehazten duen balioen oinarritzko hierarkiaren arabera garatzen da. Balioen hierarkiak lotura zuzena du bizitzan zehar hartzen ditugun aukera txiki eta handiekin. Bestetik, errealitatea onartu beharra dugu. Gehien sufriarazten diguten aspektuen artean, gure errealitatea ez onartzea dago. Gauzak beste modu batekoak balira edo egoera aldatuko balitz, zoriontsuago izango ginatkeela pentsatzen dugu askotan. Baina, errealitatea ez da aldatzen gure desioen arabera, eta ezin dugunean aldatu, hobe da datorren moduan onartzea. Horrek lasaitasun gehiago ematen digu eta, era berean, gure egoeraren jabe izateko gai gara.

Bukatzeko, bizitza-proiektua izatea ezinbestekoa da. Barnetasuna garatzeko eta errealitatea (bere alderdi positibo eta negatiboekin) onartzeko prozesua egiten baldin badugu, gure existentziari zentzua emango dion bizitza-proiektua egiteko prest egongo gara, helburu jakin batzuetatik abiatuta. Helburu horien artean, garrantzitsuenetakoa besteendako baliagarria izatea, beharbada, autoestimu eta poztasun iturri nagusia da eta.<

«Gehien sufriarazten diguten aspektuen artean, gure errealitatea ez onartzea dago. Hobe da datorren moduan onartzea, horrek lasaitasun gehiago ematen digu»

barruan



Eneko Landaburu

Sumendiko kidea

«Gure gorputzak autosendatzeko mekanismoa dauka. Oso jakintsua da»

6.



Leire Iruin

Lehiaketako talde irabazlekoa

«Asko ikasten da 'Bergara ezagutzen' lehiaketan; ikasteko beste era bat da»

19.



Ane M. Fernandez

Gimnasta

«Gimnasia gogorra da, baina behin sartuz gero erabat harrapatzen zaitu»

21.

hi, gazte!



BEKAK

Ingurumena. Ingurumen eta Turismo Kontseilaritza. Goi edo erdi mailako ingeniariak, Zientzia Kimikoetan lizentziadunak; langabezian egotea; hizkuntzak; informatika. Ingurumenaren prebentzioaren eta teknologia garbien gaineko ikerketak egiteko bekak. Epea: Apirilak 20

JARDUERAK

Trukeak 2001. Gipuzkoako Foru Aldundia. 14-17 urte bitartekoendako. Zazpi edo hamalau eguneko txandak (euskaraz eta gaztelaniaz); kirol ekintzak eta ingeles ikastaroa. Zozketarako izena ematea; Gazte Informazio Gunea (Bergarako kultura etxea). Epea: apirilaren 25etik maiatzaren 7ra

TURISMOA

Turismoa. Hemengo eta atzerriko informazio turistikoak. Liburuxkak hartzeko edo aztertzeko aukera. Nazioarte txartelak eta adin guztiendako atepekide txartelak.

IKASTAROAK

LH. La Salle Berrozpe ikastetxea. Langabezian daudenendako.

Lanbide-prestakuntzako ikastaroak: Ingelesa, informatika, lan-arrikuaren prebentzioa... Epea: tokiak bete arte

SARIAK

Argazkia. Injuve. Injuveren 2001eko argazki lehiaketa. Aukeratutako argazkilarien lanen erakusketara antolatuko dute. Epea: maiatzaren 31

Literatura. Kutxa Fundazioa; Irungo Udala. Euskarazko edo gaztelaniazko idazleendako. Poesiako eta nobelako XXXII. Kutxa-Irun hiria 2001 literatura sariak. Epea: ekainaren 15a

LAN ESKAINTZAK

Kultura laguntzailea. Eibarko Udala. Eskola graduatua edo balioidea. Epea: apirilak 11

Zortzi udaltzain. Eibarko Udala. Eskola graduatua edo balioidea. Gaitasun fisikoak. Epea: apirilak 18.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekie, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunerara.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Bergarako kultura etxean. 943 77 91 57. gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30. Martxoaren 19an, 20an eta 21ean, ordutegi berezia: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunea igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-ei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak


Juan Martin Elexpuru

Betexkei

Betazal erdi eroriak dituen pertsona.

– *Betexkela ola daukana, ola beera, japonesen da moduan.*
Begi erreka eta tristeak dituen ere bai.

– *Ezton ezautzen?*
Alako ankaluze betexkel bat.



hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Martxoak 29, eguena	12 °C	8 °C	16,9 l/m ²
Martxoak 30, egubakoitza	13 °C	8 °C	18,9 l/m ²
Martxoak 31, zapatua	17 °C	11 °C	- l/m ²
Apirilak 1, domeka	26 °C	6 °C	- l/m ²
Apirilak 2, astelehena	24 °C	7 °C	- l/m ²
Apirilak 3, martitzena	20 °C	10 °C	- l/m ²
Apirilak 4, eguaztena	16 °C	9 °C	2,5 l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

Labegaraieta

Domekak: 11:00.
Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Monja

Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

urbanoa

San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20 , 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 6:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
ZAPATUA 7:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
DOMEKA 8:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
ASTELEHENA 9:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
MARTITZENA 10:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
EGUAZTENA 11:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
EGUENA 12:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
EGUAKITZA 13:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
ZAPATUA 14:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
DOMEKA 15:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
ASTELEHENA 16:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
MARTITZENA 17:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
EGUAZTENA 18:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
EGUENA 19:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

OGIA

DOMEKA 8. Mizpildi
EGUENA 12. Ogizun
EGUBAKOITZA 13. Konde
DOMEKA 15. Mizpildi
ASTELEHENA 16. Ogizun

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIAK
Ambulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun Etxea 943 76 24 40
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50
UDALA
Bergarako udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea 943 76 62 46
Kultur Etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68
BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Jubilatuaren Etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuaren elk. 943 76 62 71

jardunen agenda



■ **Olinpiadak:** domekan, hilak 8, eskubaloia Seminarioan, 16:00etatik aurrera.

Partiduen ondoren, kartzela zaharreen sari banaketa.

■ **Topaguneko udalekuak 2001:** DBHko 1. eta

2. mailakoendako. Uztaillaren 16tik 29ra Ubidean (Bizkaia).

Informazioa eta izena emateko azken eguna: maiatzaren 4a.

■ **Astebukaerako aisialdia:** 11-14 urte bitartekoendako Aste Santuan zabalik: apirilaren 19tik 22ra: eskulanak, jokoak...

■ **Kultur errota:** apirilean, antzerkia umeendako.

■ **Nutrizio ikastaroa:** maiatzaren 2tik ekainaren 7ra (30 ordu). Informa zaitez!

Hurrengo alean, Aste Santu ostean, **apirilaren 20tik 26ra** bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu.

zorionak!



Iñigo San Jose
7an 7 urte.
Urte askotarako!
Xabier eta gurasoak.



Samira Atxabar
7an 16 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Inmatxo eta Taritari.



Idoia Regorigo
11n 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta Ekaiz.



Olatz Alberdi
17an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Aitor.



Leire Gago
8an urtebete.
Urte askotarako!
Maider eta etxeakoak.



Beñat Landa
11n 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Asier Brunet
9an 21 urte.
Urte askotarako!
Aitona eta amona.



Amaia Cerdeira
7an 31 urte.
Urte askotarako!
Ane eta Nora.



Aitor Zurro
13an 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Mikel Alberdi
7an 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Amagoia Roman
8an 2 urte.
Urte askotarako!
Alazne, Jokin eta Asier.



Ainhoa Mujika
18an 6 urte.
Urte askotarako!
Mikel eta Miren.



Aitor Conti
12an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lehengusuak.



Ane Zangitu
12an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Zabala
7an 7 urte.
Urte askotarako!
Aitor eta gurasoak.



Aitziber Azaguirre
19an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta aitona-amonak.

oharrak

■ **1941ean jaiotakoen afaria** apirilaren 21ean Azpeitxi jaietxean, 21:00etan. Izena ematea Lazkano oinetako dendan, Artatzi ohial dendan edo Azpeitxin.

■ **1943ko kintoen afaria** apirilaren 28an Antxoni jaietxean. Aurretik, hildakoen oroi-menezko meza izango da Santa Marinaran. Izena ematea S. Pedro kaleko Azkarate estankoa.

■ **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 11, Seminarioan, 18:30ean. Odol emaile berriak behar dira.

ASTE SANTUAN BERRIGARARIK EZ

Aste Santuko oporrak direla eta, hurrengo alea apirilaren 20an helduko zaizue etxeetara. Ondo ibili zuek ere!

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak
- X 150 lagunendako jangela



PARKINA ETA TERRAZA

BASTER-ALDE
J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAETA

Tf.: 943 79 24 58

Bergarako Udala



Begarako Udalak Agorrosingo Udal Igerilekuetarako aldebaterako langileak kontratatuko ditu.

Instantziak aurkezteko epea:
- 2001eko apirilaren 20ko 13:00ak arte, atezain lanpostuetarako.
- 2001eko apirilaren 18ko 13:00ak arte, kanpoko igerilekuetako lanpostuetarako.

Oinarriak udaltxeko idazkaritzako bulegoan.

Bergaran, 2001eko martxoaren 30ean.

ALKATEAK



Gozogintzan aitzindari.

Sumendik, Osasunaren Autogestiorako elkarteak, hainbat hitzaldi eman ditu asteotan herrian. Eguaztenean, Eneko Landaburu Sumendiko arduradunak higiene bitalari buruz idatzitako liburua aurkeztu zuen kultura etxean, hitzaldi sortarekin amaitzeko.

G. Zer da osasuna autogestionatzea?

E. Autogestioa hitza ideologia libertarioa dutenei asko gustatzen zaie. Izateko modu askeago bat, erabakitze aukera handiagoa... adierazten du. Autoritateengandik dependentzia gutxiago izatea, azken batean. Gure kasuan, osasun autoritateengandik. Pentsalari ezagun batek, gaur egungo orden sozialak kritikatu, esaten du humanitatearen gaitz nagusienetakoa dela gizakiak autoritateengandik gero eta dependentzia handiagoa izatea. Arlo gehienetan, gainera: osasunean, hezkuntzan...

Horren ildotik, norbere beharrak asetzeko bi modu daudela dio, autonomia eta heteronomia. Osasun arloan bien arteko desoreka izugarria dagoela dio: jendeak gero eta dependentzia handiagoa du medikuekin. Gaur egun oso erraz entzuten da "zure medikuarekin kontsultatu". Horrek norbere buruan konfiantza kentzea dakar.

G. Sumendin balantza orekatu nahi duzue.


E. Bai. Gure helburua da osasunaren autogestiorako informazioa bildu eta metodologia samurrak hedatzea; eskoletan, hitzaldien bidez... Azken batean, sendatzeko modu autonomo eta heteronomoak orekatzeko.

G. Sendatzeko orduan, bakoitzak gure barruan ditugun baliabideak erabiltzeko apustua egiten duzue.

ENEKO LANDABURU

Sumendiko kidea

«Gure gorputzak autosendatzeko mekanismoa dauka. Oso jakintsua da»



Landaburuk osasun fisiko eta psikikorako gomendioak eman ditu liburuan.

E. Bai. Gure barruan erreperazio gaitasun izugarria dugu, eta hori explotatu beharra dago. Erreperaziorako jakintza guztia gure baitan dago, berezkoa dugu, baina errekurtsio horiek erabiltzen jakin beharra dago. Guk uste dugu, gorputzak badakiela berez nahikoa, osasunean oreka mantentzeko edota gaixorik

«Gaixotasunak desatseginak izan arren, konstruktiboak ere badira. Krisi horren bidez gorputza sendatu egiten baita»

egonez gero sendatzeko. Kontserbazio instintoa da. Eta sendatu egingo da bakean utziz gero.

G. Sendatu bakean utziz gero?

E. Bai. Jendea asko harritzen da horrekin. Noski, kaltea eragiten duten tabakoa bezalako gaiak uztea ez dator inoiz gaizki. Baina gaixorik egonez gero, gehiago deskantsatu eta gutxiago janez sendatu egiten da gorputza.

Gorputza berez sendatzen delako ideia hau asimilatzea ez da erraza. Baina, zaila da, kontrakoa pentsatzera eraman gaituztelako. Gure gorputza makina erregela dela sinestarazi digute. Kotxe bat bezalakoa, hau da, izorratzen denean konpondu behar dena. Kotxea izorratzen denean arazoa non dagoen ikusi eta konpondu behar dela jakinekoa da. Baina gure gorputzean, arazoa non dagoen jakin gabe ere, autosendatzeko mekanismoa dauka.

Jendeak ez du sinisten. Izan ere, botiken aldeko izugarriko bonbardeoa jasotzen dugu.

G. Zuen ustez gaixotasunari ez zaio horrenbeste beldurra izan behar.

E. Anginak baditugu, esaterako, zomorro gaizto bat gure barruan dabilela pentsatzen dugu, eta beldurtu egiten gara. Horregatik, izugarriko danbatekoa ematen diogu botikekin.

Guk, aldiz, beste era batera pentsatzen dugu. Guretzat, nahiz eta gaixotasun bakoitza desatsegina izan, konstruktiboa ere bada. Izan ere, krisi horren bidez gorputza sendatzen ari da.

Buruko mina baduzu, esaterako, zure burmuina pozoin batetik sendatzen ari da. Txarra, burmuinera sartu den pozoia da, ez buruko mina.

Abelgorri eta ardi barik egingo da Erramu Zapatuko feria bihar

Sukar aftosotik babestea da animalia horiek ez egoteko arrazoiak

Abelgorriak eta ardirik egongo ez den arren, Erramu Zapatuko feriak urteroko egitarauari jarraituko dio gainerakoan. Euskal Labeleko produktuak, makineria, Txorimalo lehiaketa... Hainbat gunetan banatuta, zer ikusi egongo da.

Bihar, 09:30ean, irekiko dute feria. Seminarioan Euskal Labeleko produktuak eta makineria egongo dira ikusgai. Artisauak ere egongo dira Ibargarai kalean eta San Martin plazan banatuta. Horrez gain, Simon Arrieta plazan eta Irala kalean jandana eta beste hainbat postu ere jarriko dituzte. Bestalde, Azoka alaitzeko trikitilariak arituko dira herriko kaleetan.

Aurtengo berritasun nabariena behi eta ardien falta izango da: ferian ez da ez abelgorriak ezta ardirik ere egongo. Izan ere, aziendak ahoeriaren (sukar aftosoa-



Euskal Labeleko produktuak egongo dira hainbat gunetan.

ARTXIBOA

ren) aurka babesteko, ezin dira leku batetik bestera eraman.

TXORIMALOAK JARDUNEN

Jardunek antolatzen duen Txorimalo lehiaketa ere egingo da Erramu Zapatuan. Ibargarai kalean egongo dira ikusgai txorimaloak: 30 guztira. 200 lagun inguruk parte hartu dute, taldeetan banatuta. Sari banaketa 12:30ean egingo da Ibarga-

rai kalean bertan.

13:30ean, bertsolarien txanda helduko da. Azpillaga eta Agirre bertsolariek Aranzadi ikastolako patioan eskainiko dute saioa.

Arratsaldean, 17:30ean, umeendako jokoak egongo dira San Martin plazan, eta gauean, 22:15ean, bertso jaialdia udal pilotalekuan. Egaña, Lizaso, Peñagarikano, Gorrotxategi, Irazu eta Mendiluze bertsolariek es-

kainiko dute saioa. Gai jartzaile Lazaro Azkune arituko da.

KONTUAN HARTZEKOAK

Feria dela eta, zirkulazioan eta aparkalekuetan, hainbat aldaketa egongo direla jakinarazi du udalak.

Postuak Ibargarai, Herri Lagunak eta Irala kaleetan jarriko dituzte, eta han aparkatuta dauden beribilak goizeko 6etarako kendu behar-ko dira.

Ibargarai kalea trafikoa-rendako moztuko da, eta jeneralean handik igarotzen diren ibilgailuak Zurradero eta Matxitegi kaleetatik desbideratuko dituzte. Horrek zirkulazioan trabak sortuko ditu, erdialdean, batez ere. Horregatik gomendatzen du udalak autorik ez erabiltzea erdialdeko kaleetan.

Aldi berean, gogorazten du egun horietan lapurrak azaldu ohi direla (iaz 3 atxilotu zituzten), eta, arretaz ibiltzea eskatzen du.

Arin-arin igaro zituen Korrikak 9 kilometroak

Iragarri bezala, astelehenean heldu zitzaizgun Korrika herrira, 20:30ak aldera. Osintxutik hasi eta San Antonion azken aldiz lekukoa hartu arte, bederatzi kilometro egin zituen herrian; arin-arin, gainera. Giroa ezin hobea izan zen, eta jende ugari lotu zitzaion euskararen aldeko ibilaldiari. Arratsaldean, ikastetxeetako neska-mutikoek Korrika Txikia egin zuten, eta ostean, klario-nada San Martin plazan. Baionara, helmugara, domekan iritsiko da Korrika.



Udaleko langile guztien %80 euskalduna da

Euskararen erabilera bultzatu eta normalizatzeko ahaleaginean udalak abian jarritako AEBE planaren fruituak ezagutzera eman zituzten martitzenean, Euskara Zerbitzuko teknikari, langile eta hainbat udal arduradunek.

AEBE plana 1995. urtean jarri zuten martxan udalean. Helburua: ahal den guztietan euskaraz lan egitea, eraldunen eskubideak errespetatuz.

Estepan Plazaola euskara teknikariak azaldukoaren arabera, aurretiaz, 1990ean udaleko lanpostu bakoitzerako zein hizkuntza maila behar zen finkatuta zegoen, eta langileak euskara ikasteko prozesua martxan.

Oinarria sendoa zen, hau da, langile euskaldun asko zegoen. Hala ere, EGA edo gorako maila zuten langileak gutxi ziren: %4. Gaur egun, %42.

%80 EUSKALDUNA

95etik aurrera, AEBE planaren ondorioz, langile guztien %80 euskalduna dela gaineratu zuen Plazaolak, eta lan administratiboa egiten duten langileen artean %100.

Erabilerrari dagokionez, udal barruko funtzionamen-



Udal idatziak euskaraz jasotzeko eskaera orria buzoneatuko dute.

dua ia guztiz euskaraz da: aktak, barruko txostenak, bilerak... Kanpokoekiko harremanetan ere aldaketa nabarmena egon da. AEBE plana abian jarri aurretik, gobernurako idatziak, esaterako, %30 ziren euskaraz; gaur egun, %90etik gora.

Estepan Plazaolak gaineratu zuenez, plana langile guztien parte hartzearekin eraman dute aurrera, eta langileen iritziz, plana sakontzen jarraitu behar dute.

HERRITARREKIN EUSKARAZ

Planaren lehenengo fasea amaituta, bigarrenari ekin diote. Asmo nagusiak hauek dira: orain artekoa sendotu eta finkatzea, euskararen erabilerrari dagokionez ahulen dauden arloak sakonago lantzea (enprese-

kiko harremanak, informatika, erakunde publiko batzuekiko harremana...), eta hizkuntza kalitatea hobetzea, hau da, euskarazko testuak zuzenak eta ulergarriak izatea.

Honekin guztiarekin, herritarrek informatuta izateko kanpaina antolatu dute. Batetik, udalarekin harremana duten erakundeei gutun bat bidaliko diete, elkarren arteko harremanak euskaraz izateko gonbita eginez. Bestetik, herritar guztiek triptiko informatiboa jasoko dute euren etxetan. Hantxe, udalak normalizaziorako eman dituen urratsak azalduko dituzte. Triptikoarekin batera, udal idatziak euskaraz jasotzea eskatzeko orria ere banatuko dute.

Gas-instalazioen gaineko udalaren oharra

Udalak komunikabideetara bidalitako oharren ondorioz, Naturgas enpresako teknikoek hainbat traba izan dituzte gas-instalazioak aztertzeko orduan. Hori dela eta, ohar honen bidez hainbat azalpen eman nahi ditu udalak: alde batetik, gasa banatzen duten enpresak, kasu honetan Naturgas, derrigortuta daude etxetan jarritako gas-instalazioak ikuskatzera. Azterketa horiek doan izaten dira.

Bestalde, erabiltzaileak derrigor egin behar du bere instalazioaren beste azterketa bat. Azterketa horiek ordaindu egin behar dira, eta bakoitzak nahi duen instalatzailearekin egin ditzake. Hortaz, ez da derrigorrezkoa etxera jotzen den lehenengo enpresarekin egitea azterketa hori. Azterketa horiek noiz egin behar diren jakiteko, enpresa hornitzailearekin harremanetan jartzea gomendatzen du udalak. Eta aldi berean, gas-instalazioa aztertzera joango den enpresari aldez aurretik aurrekontua eskatzea ere gomendatzen du.

Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Mujika
geologia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

Indusketak egingo dituzte Osintxuko tailer zaharrean

Tailer zahar hori dagoen tokian antzina ermita bat egon zitekeen. XVI. mendeko edo lehenagoko ermita bat. Udalak, Aranzadi zientzia elkartearen bidez, indusketak egingo ditu, udal museologoaren arabera, aztarna garrantzitsuak egon daitezke-eta hantxe.

Dokumentuen arabera, Osintxuko eliza aurrean, Deba ibaiaren gaineko tailer zaharra dagoen tokian, ermita bat zegoen. Bestalde, tailerraren dokumentazioan ere, ermita baten gainean eraikita dagoela jasotzen da.

Udal museologoak eta Diputazioko arkeologo batak egindako azterketa baten, eraikinaren azpian an-



Ibaiaren gaineko eraikinean egon litezke ermitaren arrastoak.

tzinagoko pareta zati bat eta horma-bular bat aurkitu zituzten. Museologoaren arabera, «eraikinean ermita zegoela pentsatzera garamatzate datu guztiek». Arrastok ermita horri badagozkio,

aurkikuntza garrantzitsua izango da, ez baitago Gipuzkoan garai hartako ermita askorik eta oso gutxitan egin dira indusketak. Lanak egiteko Diputazioaren laguntzaren zain dago udala.

Turismo bulegoak atek zabalik

Gaur, egubakoitza, turismo bulegoa ireki egingo dute Aste Santuko egunekin bat. Astelehentik zapatara (Eguren eta Egubakoitz Santuak barne), 10:30etik 14:00-etara egongo da zabalik, eta domeka eta jaiegunetan, aldiz, 16:30etik 19:30era. Turismo Bulegoa apirilaren 22a arte egongo da irekita.

Segurtasun hesia Bideberrin

Mendekoste jaietan, iaz egin bezala, Bideberrin hesia jarriko dute erreka aldera. Txosna eta rock kontzertuak hantxe izango dira aurtenera; erreka erortzeko arriskurik izan ez dadin jarriko dute hesia.

EHk apirilaren 10eko greba orokorrerako dei egin du

Martitzenean eskainitako prentsaurrekoan egin zuten deia. Baita herritarren atxikimendua eskatu ere. EHren esanetan, Espainia eta Frantzia Euskal Herriaren aurkako eraso latzean murgildu dira, helburu nagusi batekin: «Errotik moztea, bai Euskal Herriaren hi-

tza eta erabakiaren aldeko urratsak, eta baita nazio gisa dagozkigun eskubideen defentsan ematen direnak ere». Horregatik, eta «herri honendako demokraziarik nahi ez dutelako», gerra-estrategia faxistari erantzun behar zaiola gehitu zuten. Erantzuna apirilaren 10eko

greba da. Ildo beretik, herritarren konpromisoa eskatu zuten, hori izango da-eta «demokrazia eta bakera eramango gaituena».

Greba egunerako hiru manifestazio iragarri zituzten: 10:00etan, 12:00etan eta 20:00etan. Guztiak San Martin plazatik irtengo dira.

Testigu bila istripu batengatik

Astelehenean, hilak 2, 22:40ean, istripua izan zuten bi autok Ibargarai pareko saihebidetako bidegurutzean. Ertzaintzak testigu bila dihardu: 943 76 53 40.

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Berrigara

447 zenbakia.
2001eko apirilaren 6a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Eredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate, Gari Bragado.
Eredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereizabar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega, Usua Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Juan Martin Elekpuru, Arantza Oregi, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurritzakako Kultura saila

atrebentzia ezpada

Herriko aisiguniak erabiltzen ditzuzu? Zeintzuk? Aisirako ezer falta dala pentsatzen jatzu?



Mª Jesus Garmendia

Usondoko parkera juten naiz. Lehen Gorrara be bai, baiña oin umiak hazi egin die eta... Umiendako ziburu gutxi dagola uste dot.



Martin Muñoz

Usondoko parkean sarri egoten naiz. Baita kiroldegi inguruan be. Dana dala, daren aisiaguniak hobeto zaindu biharko litzukete.



Amaia Lazkano

Batez be, parkera juten naiz, eta baita Gorrara eta Mekolaldera be. Baiña, bizikletan ibiltzeko tokixen falta sumatzen dot.



Maite Aranburu

Usondoko parkera asko juten naiz. Ointxe be hara noia. Parke gehixago egon biharko lirake. Usondo askotan beteta egoten da.



Jesus Mari Barrutia



Jeneralian, ez dittu aisiaguniak erabiltzen. Pasiu egitten dot, eta tren-bidia pixka bat konpontzia ez litzake gaizki egongo.



Francisco Cot

Bai, jeneralian, egunero juaten naiz parkera. Eta uste dot holako toki berde gehixago egon biharko lirakeela.

tira biraka bittor rodriguez



Udaberrian eta udan eder egoteko



Barrenkalea, 24

GOLD VIEW KRISTAL PROGRESIBOAK MULTIOPTICASEN



URRUN



HURBIL



3 hilabetean ordaindu
errekargurik gabe

Edozein distantziatara ondo ikusi ahal
izango duzu

19.500
pta.-tik aurrera

MULTIOPTICAS

LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

R.P.S. 164/99

Kontsumitzaileen eskubideak

Kontsumitzaileok baditugu oinarriko hainbat eskubide: osasun-erakunde eta segurtasunerako eskubidea; interes ekonomiko eta sozialak babesteko eskubidea; kalteordainak jasotzekoa, eta informazio eskubidea. Bestalde, herritarrok eskubidea dugu gure erakundeak sortu eta gure arloko gaietan entzuna izateko. Baita mendekotasun eta defentsarik gabeko egoeratan babesa jasotzeko ere. Baina, kontuan hartu behar dugu eskubideak legetan jasotzea alferrikakoa dela, herritarrak ez badira eskubide horietaz baliatzen.

Eskubide horiek egikaritzeko kontsumitzaileen elkarteak, edo KIUBak, kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoak ditu. Produktu bat erosi edo zerbitzu bat kontratatzerakoan arazoren bat sortuz gero, lehendabizi, daukagun eskubideen berri izan behar dugu. Gero, produktua erosi dugun tokian kexa azaldu eta eskaera zehatza egin behar dugu, bi aldeen artean kon-



MARTIN GARAI

Aretxabaletako kontsumitzaileen bulegoko arduraduna

«Gure eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa izatea garrantzitsua da arazoak saihesteko»

ponbidea topatzeko. Konponbiderik lortzen ez bada, baina, erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko dugu. Hala eta guztiz ere, arazoa konpontzen ez bada, baditugu beste aukera batzuk: bitartekari baten bidez, berriro akordioa lortzen saiatu; erreklamazioa administrazioaren bidez aurkeztu; arbitraje sistemara jo edo justizia auzitegira. Hori guztia norberak bere kasa egin dezake, edo bestela, kontsumitzaile elkartearen edo KIUB baten bidez. Dena dela, garrantzitsua da alde aurretik gure eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa izatea arazoak saihesteko.

Gero eta herritar gehiagok erabiltzen dituzte kontsumitzaileen bulegoak. Baina, era berean, gero eta arazo gutxiago izaten da. Izan ere, gizartea gero eta kontzientziatuagoa dago, informazioa ere eskuragarriago duelako.

Etxebizitzak, aseguruak, banka eta antzerakoak tartean direnean, zaila izaten da arazoa konpontzea; gainerakoak nahiko azkar konpontzen dira.



Produktuak erosterakoan, ondo etorriko zaigu gure eskubideen berri izatea.



1983 inguruko irudia.

Kruz Gallastegi kalea (I)

Kruz Gallastegi kalera, Irizar kaletik behera joanda, lehenengo bidegurutzean eskuinetara hartuta heltzen da. Kruz Gallastegi kalea beherantz doa Bidebarrira iritsi arte. Hortaz, Masterrekako atzealdeak eta Irizarko (eta Simon Arrieta plazako) atzealdeak Kruz Gallastegi kalera ematen dute.

Kalea berria da. Beste batzuetan aipatu dudana bezala, udaleko osoko bilkuran, 1980ko urriaren 30ean hain zuzen, Bergarako kale izendegia berriro izendegia berriro azaldu zen Kruz Gallastegi kalea.

Kalearen izena 1980tik erabakita bazegoen ere, geroago hasi zen erabiltzen. Aldaketa sakona Otazuaneke lanategia botatzearekin etorri zen, 1987an. Gero, 1990ean, etxebizitza berriak eraiki zituzten eta ingurua urbanizatu zuten.

Testua: Arantazu Oregi, Udal artxibozaina.
Argazkia: BUAK utzia (Juan Idigoras fondoak).



Kiosko berriak jarriko dituzte plazan

Egunkariak eta ONCEko kupoiak saltzeko San Martin plazako bi kioskoak aldatu egingo dituzte. ONCEkoa dagoeneko kendu dute, eta egunkariena laster kenduko dute. Udaleko arduradunen esanetan, **hilabete barru** gutxi gorabehera jarriko dute egunkarien kiosko berria. ONCErena, berriz, lehenago, izan ere, orain kioskorik gabe daude. Banco Guipuzcoanoren aurrealdean jarriko dituzte, plaza aldera begira. Kiosko berriak hiriburuetan daudenen antzerakoak izango dira, Sevilla modelokoak. Kioskoak oso zaharkituak zeuden dagoeneko eta, bestalde, ONCEkoek eurek ere aldatzeko gogoia zeukaten.

Txapuzeruak txapeldun

Egubakoitzean jokatu zuten Jardunek antolatzen duen 'Bergara ezagutzen' lehiaketako finala **Txapuzeruak eta Petu-Petuan** taldeek. Oso parekatuta ibili ziren bi taldeak, baina, azkenean, Txapuzeruak taldea nagusitu zen, 253 punturekin. **Petu-Petuanek**, berriz, 225 puntu lortu zituen. Txapeldunek **bidaia bat** irabazi zuten; asteburuan bertan izan ziren Bertizen, Nafarroan, rafting eta piraguismoa egiten.



Ikasleak Reims-en

Miguel Altuna institutuko **administrazio eta finantzako bigarren mailako ikasleak Reims-en**, Frantzia, egon dira martxoaren 16tik 24ra. Bergarako ikastetxe horrek eta Reims-eko Libergier lizeoak hitzarmena dute sinatuta, eta urtero joaten dira hemengo ikasleak hara. Hango ikasleak ere urtero etortzen dira Bergarara. Hango familiekin egoten dira ikasleak, hizkuntza, ohiturak eta bizitzeko era ezagutzeko. Reims-eko ikasleak, berriz, azaroan etorriko dira. Paris bisitatzeko aukera ere izan zuten bergararrek. Argazkian, Eiffel dorrearen ondoan.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak
orokorrean

Pintura industrialia


Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

610 25 99 82 / 610 25 40 37
943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

AGOITZ
tapiz denda

Leizariako San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675



luz konpondu zituen udalak Lamiategiko osina eta inguruak: mahaiak, eserlekuak eta paperontziak jarri zituzten.

Bergarako i

Kanpora atera gabe, Bergaran bertan, nba

Udaberriarekin batera, eguzkiak ere gero eta bisita gehiago egiten digu. Negua ez da batere gogorra izan, bainuzki kanpora, hondartza eta eguzki bila gehientsuenak. Baina bertan geratzen den jendeak, Bergaraten g


Kontua etxetik atera eta kanpoan egin ditzakegun jarduerak egitea da: paseatzea, zelaian etzan eta egotea edo eguzkia hartzea... Etxean geratzea izaten da azkena. Kaleak eta aisialdirako inguruko guneak betetzen hasten dira, gero eta jende gehiago ikusten da. Armairutik uda parteko arropak ateratzen hasteko tentazioa ere izaten dugu, nahiz eta hurrengo egunean zer eguraldi egingo duen jakin ez.

Goizean leihora hurbildu eta eguzkia gurean dela ikusteak, jantzi eta kalera ateratzeko gogoia sortzen digu. Baina, nora joan?

GORLARA, SAN MARTZIALERA...

Biak ere ez dira batere aukera txarrak. Kotxez joaten da jende asko, baina paseo bat eginez ere joan gaitezke. Paraje ederrak ditugu inguru horietan. Adin eta mota guztietako jendearendako tokiak dira. Umeak dituztenendako egokiak. Baita jende gaztearendako ere. Gazte asko joaten da: zerbait jan, eguz-

kia hartu, berba egin... Mahaiak eta eserlekuak ere badaude. Gorlako kantinaren arazoak, baina, bere horretan dirau. Alde batetik, kantina zaharra berrehala botako ei dute, eta kantina berria ez du inork hartu oraindik. Udalak deialdia zabaldu zuen arren, ez zen inor aurkeztu. Beraz, oraingoz, behinik behin, etxetik eraman behar jateko eta edatekoa. Dena dela, kantina laster zabalduko dutela espero dute, beraz, egonean egoteko toki nahikoa izateaz gain, bestelako zerbitzuak ere topatu ahal izango ditugu bertan.



isiaguneak

an, bat gune eta aukera dugu aisialdirako

bainuzki gosez eta kanpoan egoteko gosez gaude gehienok. Aste Santua ere gainean dugu, eta jende asko joango da garaten gabe, baditu aisialdirako hainbat gune: Gorla, Usondoko parkea, trenbide zaharreko bidea...

PARKEAK

Herri barruan daudenez, ez dago ko-txea hartu edo ibilaldi luzerik egin beharrik parkeotara iristeko. Horregatik ziurrenik, jende askok erabiltzen ditu. Astean zehar umeak dituztenak joaten dira batik bat, Usondoko parkera, adibidez. Toki ezin hobea da umeekin goiza edo arratsaldea pasatzeko. Jarrita egoteko bankuak daude, eta baita berdeguneak ere. Hala ere, ez dira bakar-rak umeekin joaten direnak. Jende gazteak ere egonaldi luzeak egiten ditubertan, berba egiten, irakurtzen edota

eguzkia hartzen. Erretiratuak ere, gizon-zkoak, gehienbat, ibiltzen dira parkeetan.

Espoloia ere hor daukagu. Jende asko egoten da hantxe arratsaldeetan. Horra ere, gehienbat umeekin joaten da jendea. Izan ere, ziburuak daude eta toki aproposa da umeendako.

IBILTARI ASKO

Ibiltzea oso ona ei da osasunarendako. Egun hauetako giroarekin, are eta hobea. Bergaran badira paseatzeko lekuak, eta jende asko ibiltzen da. Garai

baten trenbidea izandakoa, adibidez, oinezkoendako bide bilakatu da. Egunero-egunero Osintxu edo Sorluzeraino oinez joaten den jende asko dago. Beste aldera ere, Elorregi aldera, jende asko joaten da. Gehienbat jende heldua ibiltzen da, izan ere, denbora gehien dutenak dira. Baina jende gazteak ere erabiltzen ditu bide horiek. Badira bideotan bizikletan edo korrika ibiltzeko ohitura dutenak ere. Goiko estaziñua, bestalde, kaletik hain hurbil eta, era berean, hain aparte egonda, toki aproposa da eguzkia hartzeko.



Garai bateko trenbidea, gaur egun, paseatzeko gune.

ARTXIBOA



San Martzial arratsalde-pasarako gune aproposa da askorentzat.

ARTXIBOA

■ Trenbide zaharra oinezkoendako bide bilakatu da eta jende asko ibiltzen da

■ Angiozarrerako bidean, bi osin daude: Lamiategikoa eta Amuskibarrekkoa

URA DAGOEN TOKIAN...

Jende ugari batzen da. Orain baino bero handiagoa egiten duenean, batez ere. Oraindik ez du indar handiegirik eguzkiak, baina udan, eguzkiak betebetan jo eta berotzen duenean, ez dago bainutxo bat hartzea bezalakorik. Eta horretarako aukera ere badugu Bergaran. Alde batetik, igerilekuak ditugu. Azkenaldian arazo bat baino gehiago eman duten arren, dagoeneko zabalik daude Agorrosingo igerilekuak. Kanpokoak, berriz, ekainean zabalduko dituzte. Jende asko egoten da hantxe uda partean, ekainean eta uztailean, batez ere. Izan ere, abuztuan jende asko kanpora joaten da. Kanpoko igerilekuan bainu bat hartu eta zelaian etzanda egotea bergarar askoren aukera izaten da. Eguzkia hartzeko ere ez da toki txarra.

Baina, bainu bat hartu eta egonean egoteko beste tokirik ere badago gure herrian. Naturatik hurbilagoko eta jende gutxiagoko tokiak gustukoago dituztenendako, Angiozarrerako bidean bi osin edo putzu daude: Lamiategikoa eta Amuskibarrekkoa. Iaz konpondu zuten Lamiategiko osina, eta inguruak ere

egokitu zituzten: bankuak, mahaiak eta paperontziak jarri zituzten bertan egon nahi dutenendako. Esan bezala, Angiozarrerako bidean dago, zabortegia baino aurreraxeago.

IBILALDIAK

Mankomunitateak hala eskatuta, Kapirixo, Debagoieneko kultura ondarea babesteko elkarteak, hainbat ibilbide prestatzen ari da. Bailarako herri guztietako ibilbideak prestatu nahi ditu Mankomunitateak, eta Kapirixo Bergarako arduratuko da. Oraingoan, Tumuluen Xenda egin dute, Gorlatik Irukurutzetara; orain, Trenbidearen Xenda prestatzen dihardute. Ibilbide interesgarriak dira, kultur kutsua dutenak, erraz egitekoak eta herrigunetik kanpo daudenak. Helburua, garai bateko bideak berreskuratu eta gure inguruan dauzkagun ondareak ezagutaraztea da. Behin ibilbideok prestatuta, turismo bulego eta udaletxeetan eskuragarri izango dira edonorentzat. Diptiko hauetan ibilbidearen deskribapen zehatza egiten da, mapa eta guzti, eta bidean zehar dauden interesguneak ere markatzen dituzte.<

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

ATARI

Zure auzo elkarteko arazoak
konpontzeko gertu

Finka administrazioa. Kolegiatu zkia. 574
Ibargarai 1. Tel. 679 378 192. Faxa 943 76 38 41

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3



mooby

Kruz Gallastegi, 9
943 76 54 48



MISS SIXTY.

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

KARATE FEDERATUA
Bizitzeko artea,
elkarbizitzeko kirola

Giartzu
KARATE KLUBA

ADI! Apirilaren 29an **Infantil**
mailako **IV. Bergara Hiria**
karate txapelketa ofiziala
Antolatzailea: **Giartzu**
Zatozte ikustera!

Aukera onena!



Giartzu
KIROL KLUBA

Boni Laskurain 3
Telefona: 943 76 35 71

Leirek 16 urte dauzka, eta Jardunek antolatzen daben 'Bergara Ezagutzen' lehiaketako talde irabazleko bozeramaillia da. Txapuzeruak taldia izan da aurtengo irabazlia: Aranzadi ikastolako 15 ikaslek osatzen dabe taldia.

Zer sari irabazi dozue?

Bidaia bat: Bertizen egon gara asteburuan, *rafting* eta piraguismua egitten. Oso ondo pasau dogu.

Ikasi ere, asko ikasiko ziñuen, ezta?

Bai, asko ikasten da; gaiñera, ikasteko beste era bat da.

Bergararen gaiñeko bitxikeriaren bat jakin dozu?

Bai; ez nekixen Seminarixua ospitala be izan zanik.

Zein izan da egin bihar izan dozuen frogarik zaillena?

Finalian, taldekide batzuk kalera juan eta baserritar jantzixa eta Korrikako petua lortu bihar izan zeben.

Zelan prestau dozue lehiaketia?

Irakasliek asko lagundu doskue; baiña liburuetatik eta jendiari galdetuz be lortu bihar izan dogu informaziñua.

Eta nundik etara dozue taldianako holako izena?

Izena pentsatzen gebitzela, esandako izenak txarrak zirela esan zeban batek; orduan pentsatu giñuan Txapuzeruak izena jartzia.

Zeren falta igertzen dozu Bergaran?

Parrandarako giro hobia.

Denpora librian zer egitten dozu?

Lagunekin egotia gustatzen jat; astian zihar ezin izaten dot eurekin egon.

Janari bat?

Arroza.

Leire Iruin

Usain bat?

Marrubi usaiña.

Kolore bat?

Berdia.

Aste Santurako planik?

Bai, Pinedara juango naiz.

Aukeran, hondartza ala mendixa?

Hondartza.

Korrikan parte hartu dozu?

Bai, hiruzpalau kilometro egin dittut.

Telebisiñua, egunkarixa ala irratixa?

Telebisiñua.

Telebisiñoko saio bat?

Goenkale.

Goenkaleko aktore bat?

Gutirena egitten dabena: Gorka Igartua.

Film bat?

La boda de mi mejor amigo.

Liburu bat?

Luces de bohemia; irakurri dezala jendiak, ia gustatzen jakuen; irakasliak agindduta irakurri bihar izan dot, eta ez jat bape gustau.

Zure bertute bat?

Egixa esatia beti; pentsatzen dotena esatia.

Eta defektu bat?

Gehixegiko sensiblia naiz.

Bukatzeko, amets bat?

Nere ametsetako mutilla lortzia.



Nutrizioari buruzko ikastaroa

Maiatzaren 2tik ekainaren 7ra

Ordutegia aukeratzeko modua:

1. Astelehen eta eguenetan
19:00etatik 21:00etara
2. Eguazten eta egubakoitzetan
15:00etatik 17:00etara

**Izena emateko azken eguna
apirilaren 26a**

Jarduneko bazkideek **4.500 Pta**

Gainerakoek **5.500 Pta**

Informazioa: 943 76 36 61

GALAK:
Proteinak
Koipeak
Hidratoak
Janari taldeak
Sukaldeko higiena
Mediterraneoko dieta
Esnekiak, arrautzak
Kontserbak
Menuak



Bergarak hil edo biziko partidua zapatuan Soduperen aurka

Bergarako hirugarren mailako futbol taldeak behar beharrezkoa du bihar, zapatua, 5etan., Sodupe taldearen aurkako partidua irabaztea. Liga amaitzeko sei partidu falta dira, eta mahoneroak sailkapeneko azken aurreko tokian dira, 32 punturekin.



Begarako futbol taldeak ezin du hutsik egin etxeko partiduetan.

Garairen taldea bolada txarrean murgildurik dago, jokaturako azken zazpi partidua galdu dituzte-eta mahoneroek. Ia liga osoan sailkapen erdialdeko tokietan egon ondoren, inor gutxik espero zuen azken jardunaldietan bergararrak hain larri ibiltzea. Domekan, Realaren aurka, 2-1 galdu zuen Bergarak. Garairen hitzetan,

«partidu ona jokatu genuen, eta emaitza positiboa lortzeko meritua egin arren, esku-hutsik bueltatu ginen. Dena dela, taldea sendo ikusi nuen eta pozik nago jokalariek egindako lanarekin».

Orain, jaitsiera postuetan dago Bergara, sailkapeneko 19. tokian, 32 punturekin, hain zuzen ere. Sailkapeneko azken tokietan gauzak estu daude. Liga amaitu bitartean, Bergarak sei partidua jokatuko ditu: hi-

ru Agorrosinen (Sodupe, Durango eta Zamudio) eta hiru etxetik kanpo (Zalla, Lagun Onak eta Baskonia). Garairen arabera, sei partiduetatik lau irabaztea beharrezkoa da. Etxeko partiduetan ezin da hutsik egin. «Bihar irabazten ez badugu, gaitza ikusten dut kategoriari eustea», dio Garaik.

ZALEEN LAGUNTZA

Zaleen laguntzak berebiziko garrantzia izan dezake bihar. Garaik esaten duenez, «jokalariek hirugarren mailan jarraitu nahi dute, zuzendaritzakoek ere bai, eta nire ustez, zaleek ere hori nahi dute. Ea guztion artean indar pixka bat egin eta gure helburua lortzen dugun».

Jorge Aranes tenis txapelketako irabazlea

Jorge Aranes bergararrak irabazi zuen zapatuan Labegaraietako tenis txapelketa, finalean Ismael Zubia oñatiarrari hiru setetan nagusitu eta gero: 6-2, 4-6 eta 6-4. Aurretik, hirugarren tokia eskuratzeko partiduan, Jose Caballero arrasatearrak bi setetan irabazi zion Jabier

Balzategi oñatiarrari. Bergarako tenis txapelketan Debagoieneko 31 lagun izan dira lehian. Debagoieneko zirkuituko hurrengo txapelketa Oñatin jokatuko da, apirilaren 21etik aurrera. Izena ematea Bergarako Kirol zerbitzuan egin daiteke apirilaren 10era arte.



laz bezala, Aranesek (erdian) irabazi zuen tenis txapelketa. IÑAKI UGARTEBURU



**Industri
hornidura**

Zubiaurre, 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Sakelakoa: 656 78 64 84.

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



*Asteburuetan bertako
babak eta saiheskia*

SALBADOR 10 ELGETA
Tf. 943 76 82 73

Ane Miren Fernandez gimnasta, Bartzelonara

Ane Miren Fernandez 16 urteko gimnasta bergararrak Euskadiko taldea ordezkatzeko du astebukaeran Bartzelonan jokatu den Kataluniaren eta Euskadiren arteko anaia arteko txapelketan. Ane Mirenekin batera, Miriam Merino eibartarra, Nagore Sanz donostiarra eta Almudena Cid gasteiztarra izango dira Bartzelonan. Euskadiko hautatzailerak Tania Nagornayak ondo baino hobeto ezagutzen du Ane Miren, bere entrenatzailea baita Eibarko Ipurua taldean. Joan den martxoaren 24an Gasteizen jokatu-tako txapelketan lortu zuen Ane Mirenek deialdian sartzea. Pilota, mazo, soka eta uztaiarekin maila bikaina erakutsi zuen gimnasta ber-



Ane Miren Ipurua taldean ari da.

gararrak. Astebukaeran, Bartzelonan, sokarekin izan ezik, beste hiru aparailuekin ariketak egingo ditu.

KIROL GOGORRA

Ane Miren 11 urterekin hasi

zen gimnasia egiten, Bergarako Ariznoa taldean, eta azken hiru urteak Eibarko Ipurua taldean eman ditu, Tania Nagornayaren eta Susana Prietoren aginduetara. Aintzane Narbaez eta Leire Lasa bergararrek ere Ipurua taldean dihardute. Astean, egunero, lau bat orduz entrenatzen da Ane Miren: «Gimnasia oso gogorra da, asko gustatu behar zaizu. Baina, behin mundu horretan sartuz gero, erabat harapatzen zaitu. Oraingo, gustura nabil».

Hemendik ekainera bitartean, ia astebukaerero lehiaketaren bat izango du Ane Mirenek. Maiatzaren erdialdean Espainiako Reina Sofia kopan parte hartuko du, Alacanten.

Igerilekuak eta kiroldegia itxita

Aste Santuko opor-
rrak direla eta, igerile-
kuak itxita izango dira
apirilaren 12an, 13an eta
16an. Kiroldegia, berriz,
12an eta 13an.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Urola
Infantilak
Zapatua. 12:00. Ipintza
Bergara-Sodupe
Hirugarren maila
Zapatua. 17:00. Agorrosin

ESKUBALOA

Bergara-Urrietako
Gazte mutilak
Domeka. 10:30. Kiroldegia
Bergara-Leizaran
Kadete mutilak
Domeka. 12:15. Kiroldegia

PILOTA

Bergara-Eibar
Deba Arroko finalerdia (senior maila)
Martitzenean, Udal Pilotalekuan,
20:15ean

Muguruza eta Gutierrez pilotariak Deba Arroko finalerdietan

Ander Muguruza eta Igor Gutierrez bikote bergararrak 21-22 irabazi zion martitzenean Gandiaga-Bengoetxea Eibarko bikote-ari, Deba Arroko txapelketako finalerdietako joaneko partidari, Eibarren. Datorren martitzenean, hilak 10, itzulerako partida jokatu du-

te Bergarako Udal Pilotalekuan, 20:15ean. Kanporaketa irabaziz gero, Muguruzak eta Gutierrezek Deba Arroko txapelketako finala jokatuko dute Antzuolan, apirilaren 29an. Bergararrak txapelketa borobila egiten ari dira. Debagoieneko multzoiaren lehenak izan ziren senior

mailan. Zortzi partidatik bakarra galdu zuten, Arrasateko bikotearen aurka (22-19). Muguruza (19 urte) eta Gutierrez (23) bigarren urtez aritu dira elkarrekin jokatzen Deba Arroko txapelketa. Beste finalerdia Aretxabaleta eta Elgetako bikoteen artekoa da.



Igor Gutierrez eta Ander Muguruza.

etxalar
kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

*Irekiera
komisioa:
%0,25.
35 urte
bitartearaino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Eri-Apa Oxemai	3-0
Bildurbarek-Pagomendi	3-0
Torrekua-Buya	3-0
Amoskibar-Fac	5-4
Bar Canalejas-Bar Ugarte	6-7

B MULTZOA

Cine Bank Irimo-Vacalouras	2-5
Aluminios Kresala-Amilotx	1-4
Pinturas Bergara-Aterpe	9-2
Agirrebeña-Ortzi	5-6
Kanpazar Harrobia-Bayer	3-5

C MULTZOA

Shaktale-Artusamak	4-3
Patxaran Team-K. Piperrak	3-4

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

9:30: Amilotx-Vacalouras	Amoskibar
10:30: Buya-Eri	Amilotx
11:30: Apa Oxemai-Torrekua	K. Piperrak
12:30: K. Piperrak-Shaktale	Apa Oxemai
16:30: Errotagain-Pagomendi	Aterpe
17:30: Ortzi-Aterpe	Errotagain
18:30: Agirrebeña-Etengabe	Ortzi
19:30: Bildurbarek-Fac	Etengabe

DOMEKAN, KANPOAN

10:30: Txipiron-Artusamak	Irubide
11:30: Errotagain-Irubide jatetxea	Canalejas
12:30: Canalejas-Bildurbarek	Errotagain

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Etengabe-Pinturas Bergara	Amoskibar
17:00: Amoskibar-Torrekua	Bar Ugarte
18:00: Eri-Bar Ugarte	Kanpazar
19:00: Kanpazar-Aterpe	Eri

ARGI!

Hainbat talde zigortuta

Apa Oxemai taldeari Eri taldearen kontrako partidua galdutzat eman diote, fitxarik gabeko jokariak izateagatik. Buyari, partidua galdutzat emateaz gain, hiru puntu kendu dizkiote Torrekuaen aurka ez aurkezteagatik. Aterperi ere hiru puntu kendu dizkiote partidua ez arbitratzeagatik. Hurrengoan txapelketatik kanporatuko dituzte.

Kopako zozketa

Kopa txapelketaren zozketa martitzenean, hilak 10, egingo dute kultura etxean, 18:30ean.

Pinturas Bergara eta Amoskibar

B multzoan Pinturas Bergara taldeak ustekabeen irabazi zion Aterpe liderrari, erraz gainera (9-2). A multzoan Amoskibar 5-4 nagusitu zitzaion Fac taldeari.



GORA eta BEHERA



Artusamak eta Aluminios Kresala

Artusamak taldeak 3-4ko emaitzarekin galdu zuen Shaktaleren aurka. Aluminios Kresalak ere uste baino errazago galdu zuen Amilotxen aurka (1-4)

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	52	20
2. Errotagain	46	19
3. Bildurbarek Opel Lam	43	20
4. Bar Canalejas	34	20
5. Amoskibar	33	19
6. Pagomendi	33	20
7. Fac	24	20
8. Eri	19	18
9. Irubide jatetxea	18	19
10. Torrekua	13	19
11. Buya	11	19
12. Apa Oxemai	4	20

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	38	17
2. Ortzi	36	16
3. Kanpazar Harrobia	32	17
4. Aluminios Kresala	32	17
5. Amilotx	32	18
6. Bayer	29	18
7. Pinturas Bergara	20	17
8. Vacalouras	16	17
9. Agirrebeña jatetxea	9	17
10. Cine Bank Irimo	9	18
11. Etengabe	4	17
-	-	-

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	36	16
2. Mongatxurak	33	14
3. Artusamak	31	14
4. Guadalest	27	15
5. Komando Piperrak	22	15
6. Txipiron	19	15
7. Shaktale	17	14
8. Patxaran Team	5	15
-	-	-
-	-	-
-	-	-

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:



Irizar 2
943 76 14 95
JAUJA KIROLAK



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein Saria

Sailkapen orokorra:

Arkaitz Arana	13 puntu
Ander Berraondo	11 puntu
Aitz Arabiourrutia	10 puntu
Koldo Erostarbe	9 puntu


Etxeo partiduak bakarrik hartzen ditugu kontuan.

GASTON Y DANIELA



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala



Loramendi

kirolak

www.loramendikirolak.com



Arrasaten



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa

Hiru hauetako zein arbola mota da Irizar kalekoa: erramua, aligustrea (arbustu arrunta) ala gurbitza?

galde debalde

1. Iaz, Angiozarrera bidean dagoen osin bat konpondu zuten. Zein izen du?


- A- Lamiategi
- B- Amuskibar
- C- Osinurdin

2. Zein taldetan ari da Ane Miren Fernandez gimnasta bergararra?

- A- Mendizorrotza
- B- Ipurua
- C- Ariznoa

3. Non irabazi berri ditu Bergarako Orfeoak bi sari lehiaketa batean?

- A- Noveldasen
- B- Madrilen
- C- Iruñean



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Nuria Elkoroberezibar**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Nuriari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **Lorentxo Askasibar**

Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Berberana Joven
ardo beltza, 3/4 l.

249 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Orfeoia irabazle Alacanteko erlijio musikako lehiaketan

Joan zen zapatuan, Noveldas herrian jokatutako erlijio musikako lehiaketan Bergarako Orfeoia gailendu egin zen. Bi sari jaso zituen, gainera: lehen saria, eta hautazko obraren interpretazio onenaren saria.



Alacanteko hotelean, entseiatu ostean, Orfeoikoak talde argazkian.

Estatu mailako lehiaketa izan zen, eta beste lau taldeekin aritu zen lehian: Iruñea, Aragoi, Alacant eta Madridgo taldeekin. Hala ere, parte hartzeko hogeitik gora taldek eman zuten izena. Baina Noveldaseko Colegio Padre Dehonek, antolatzaileak, aurrehautaketa bat egin zuen eta aipatutako bostak aukeratu.

BI SARI

Lau obra abestu zituen Orfeoia derrigorrezko eta

hautazkoen artean: Santa Maria Magdalena, Noveldaseko plegaria; Juan Garcia Salazarren motete barroko bat, eta XX. mendeko bi, obra ingelesa, eta kyrie lituano bat.

Bergarakoak erakutsi zuen mailarik onena epaimahaiarentzat, eta bi sarire-

kin bueltatu dira: lehen saria (500.000 pta eta Noveldaseko 'Torre triangularra' ren irudia), eta hautazko obraren interpretazio onenarena (50.000 pta).

Orfeoiko kideak, oso pozik daude, batez ere, «gainerako taldeek oso maila ona zutelako».

Ainhoa Agirreazaldegia bi finaletan arituko da asteburuan

Bergarako bertsolariak bi finaletan parte hartuko du asteburuan: zapatuan Gabiriko Osinalde sarian (Gabiriako elkartearen, 20:30ean), eta domekan, VIII. Orixe sarian (Añorgan izango da, 11:30ean). Bi sarietako bakoitzean 18 bertsolari aritu dira. Sei laguneko hiru kanporaketa jokatutuzte, eta final bakoitzean beste bost bertsolariarekin jardungo du Ainhoa Agirreazaldegik.

Bere helburua, «saio politik egin eta entzuleak gustura lagatzea da, izango ditudan emaitzei horrenbeste begiratu bari». Bestalde, Gipuzkoako txapelketan ere bigarren faserako sailkatu da.

'Gure haurtzaroko lorategia' gaur, egubakoitza, Novedadesen

Zurriola antzerki eskolaren azken lana da. Eskola hori Montxo Imazek sortu zuen 1977an. Gaur egun, 225 ikaslek dihardute eskolan, 21 taldetan banatuta, lau irakasleren ardurapean. Eskolak LHko 3. mailatik DBHko 4. mailara ematen dira. Gainera, bi gazte talde eta talde amateurra daude.

Talde amateurra 1994-95.ean sortu zuten, eta ordutik hona bost lan estreinatu ditu. Azkena gaur, Novedades aretoan, 22:30ean eskainiko duten 'Gure haurtzaroko lorategia'.

Antzezlanak 16 urteko neskato baten, *Sitaren*, gorabeherak kontatzen ditu. Aita desagertu zenetik, bere

munduan murgildu da errealitateari bizkarra emanez.

Obraren egilea Alberto Miralles da, eta euskarazko itzulpena Ritxi Lizartzak egin du. Zuzendari Anartz Zuazuak dihardu eta aktore gisa, Zurriola eskolako sei aktore amateur. Iaz, saria jaso zuen Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketan.



Antzezlanaren une bat.



**Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86

**LONBIDE
ONETAKOAK**

Bidekurutzeta 5
BERGARA

☎ 943 76 10 57





Gazteen Banda, 1986

Hamazapi urte pasatxo bete ditu dagoeneko Musika Eskolak, eta ordutik hona ikasle ugari igaro da eskola horretatik; gazte asko izan dira instrumenturen bat jotzen ikasten, eta eskolaren fruituak begibistan dira, musikariaren harrobi bikaina bilakatu da-eta eskola. Musika Eskolako taldeek, betiere, maila bikaina erakutsi dute, eta horren adibide dugu oraingo asteko erretratuan agertzen den taldea. Alberto Laskurainek zuzentzen zuen Gazteen Bandan aritutako askok eta askok Orkestran

edo Udal Musika Bandan jarraitzen dute oraindik. Goiko erretratu zaharra Mariaren Lagundian ateratakoa da. Ezkerretik esku-mara:

Lehenengo ilaran: David Lopez de Abetxuko, Alberto Laskurain, Jabi Arrondo, Iker Etxebarria, Aitor Moraza, Asier Lazkano, Unai Lizaraburu (atzean), Ana Aiastui, Irene Murgiondo, Amaia Familiar, Jokin Mendiaratz, Igor Larrañaga, Nekane Gabi-londo, Eider Aranzabal eta Eider Gonzalez.

Bigarren ilaran: Josu Unamuno (Ana

Aiastuiaren atzean, erdi ezkutatuta dagoena), Jon Leturia, Aitor Ibarra (atzean, burua ikusten zaiola), Jesus Mari Arriaran, Asier Elortza, Kristina Gallastegi, Kepa Mendibil, Zigor Martinez, Iñigo Idigoras, Patxi Olabarria (Iñigoren atzean), Mireia Larrañaga, Enrike Txurruka (Mireiaren atzean), Yolanda Cebrian, Ane Iraegi, Nagore Laskurain eta Ane Olabide.

Aurrealdean, batutarekin, Jon Sanchez.

Argazkia: Igor Larrañaga

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulak
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Laser
depilazioa.
Ez zara
damutuko.



Nabarmendu zure edertasuna
makilaje iraunkorarekin

Mikropigmentazioa

eta...




Del egizu konpromiso barik,
behar beste informazio emango dizugu:

943 76 31 71

LILURA
Edertze Institutua



Bidekurutzeta 7. BERGARA



UGARTE
A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



San Juan, 1 • (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxe: 943 76 54 91



UNITED COLORS
OF BENETTON.